



RED DE TEATROS DE NAVARRA NAFARROAKO ANTZOKI SAREA

ESTATUTU ERABERRITUAK

(indarrean 2013ko apirilaren 16tik)

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Izena.

"Nafarroako Antzoki Sarea" izenarekin, elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren eta gainerako garapeneko xedapenen babesean, nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa duen elkarte bat eratu da Iruñean (Nafarroa), irabazi asmorik gabe eta bere jarduna irizpide demokratikoen mende jarrita, aipatu Lege Organikoaren eta garapeneko xedapenen helmenarekin.

2. artikulua. Egoitza soziala.

Elkarteak Iruñean du egoitza soziala, "Iñigo Arista kalea 16, etxabea" helbidean. Zuzendaritza-batzordearen erabakiz, sozietatearen egoitza aldatu ahal izanen da.

3. artikulua. Iraunaldia.

Elkartea iraunaldi mugagabearekin eratu da.

4. artikulua. Lurralde-eremua.

Sarearen lurralde-eremua Nafarroako Foru Komunitatea da.

5. artikulua. Xedeak.

Elkartearen xedeak dira:

- Arte eszeniko profesionalen eskaintza anitza eta kalitatekoa sustatzea erregularitasunez, Sarera elkarturik dauden toki-erakundeen titulartasunekoak edo horiek kudeatzen dituzten barneko agertokietan.
- Elkartekideen baliabideak optimizatzea, koordinazio- eta lankidetzaren bitartez.
- Nafarroako Gobernuaren Kultura Departamentuarekin lankidetzaren sustatzea; izan ere, toki-erakundeek aipatu departamentuarekin partekatzen dituzte eskumenak arte eszenikoen arloan.
- Publikoa sortzea, prestatzea eta leial bihurtzea bultzatzea arte eszenikoen arloan.

6. artikulua. Jarduerak.

Aitzineko artikuluan aipatutako xedeak betetzeko, Elkartek honako jarduerak burutuko ditu:

1. Sarea osatzen duten erakundeei eskaintza eszenikoari, horren inguruko ekipamendu teknikoari nahiz horrekin loturiko beste edozein aferari buruzko informazioa eta aholkua emanen die.
2. Agertokiaren arteko koordinazioa bultzatuko duten jarraibide komunak ezarriko ditu hainbat arlotan; besteak beste, biretan dauden artisten nahiz taldeen kontratazioan eta prezio-politikan irizpideak finkatuko ditu.
3. Arloarekin lotura duten kudeaketa tresnak garatuko ditu; besteak beste, ticketing-a eta kudeaketa-softwarea.
4. Arte eszenikoen inguruko udal-jarduerarekin lotura duten zerbitzuen kontratazioa koordinatuko du; besteak beste, aseguruak, hornikuntzak, zerbitzu profesionalak eta ekipamenduak.
5. Sektorearekin eta publikoarekin lotura duten azterlanak burutuko ditu.
6. Sarearen jarduerarekin lotura duten langileak prestatzeko ekintzak sustatuko ditu.

7. Elkartea osatzen duten erakundeak ordezkatuko dituzten jarduerarekin lotura duten eskualde-, nazio- nahiz nazioarteko foroetan.
8. Elkartutako erakundeekin lankidetzan jardungo da diru-laguntzak, laguntzak eta babesletza pribatu komunak bilatzen eta kudeatzen.
9. Komunikazio- eta lankidetzaren gune komunak sortuko dituzten elkartutako erakundeentzat.
10. Elkarrearen eta elkartutako erakundearen jarduerak zabaltzeko ekintzak landuko ditu.
11. Oro har, Elkarrearen helburua betetzeko edo Sarearen elkartutako erakundearen eta elkartutako agertokiaren onurarako beharrezkoa izan den beste edozein jardueraren garatuko du, zeharka nahiz zuzenean, Sarearen estatutuaren jasotakoaren arabera.
12. Elkartutako erakundeak ordezkatuko dituzten gobernu-organoen bitartez, eta akordioak hartuko ditu eta hitzarmenak eta kontratuak sinatuko dituzten erakunde ofizialekin, eta erakunde publikoekin nahiz pribatuarekin probintzia-, nazio- eta nazioarte-mailan.

II. TITULUA. ERAKUNDE BAZKIDEAK

7. artikulua. Erakunde bazkideak

1. Nafarroako Antzoki Sarea elkarteko kide elkartuak izan daitezke ondoren aipatzen diren baldintzak betetzen dituzten Nafarroako Foru Komunitateko toki-erakunde guztiak:
 - a. Estatutu hauetako 1. eranskinean ezarritako baldintzetarako egokia izan den agertoki bat edukitzea. **Artikulu honetako 4. zenbakian erabakitakoa salbu.**
 - b. Agertokirako, kultura-kudeaketako langile profesionalak edukitzea.
 - c. Aretoari laguntza teknikoa emateko zerbitzua edukitzea, bertako langileen bitartez nahiz kanpoko zerbitzua kontratatuta.
 - d. Batzar nagusiak finkatuko duen gutxieneko sarrera kobratzeko konpromisoa betetzea.
2. Elkartera atxikitzeko eskaerak elkarrearen zuzendaritzari bideratutako idazkiren bitartez eginen dira; horretan, berariaz aipatuko da elkartean egoteko eta estatutuek jasotzen dituzten xedeak betetzeko borondatea. Aipatu idazkia toki-erakundeko organo eskudunak onartuko du. Halaber, estatutuaren 1. eranskinean eskatzen diren baldintzak betetzen dituela bermatuko du agiriaren bitartez.

3. Sartzeko eskaera jaso eta zuzendaritza-batzordeak, honek burutuko duen lehenengo bileran, eskaera aintzat hartzen duenean joko da elkartekidetzat eskatzailea. Zuzendaritza-batzordeak, erakunde izangaiak egindako eskaera baloratze aldera, egoki irizten dion dokumentazio guztia eskatu ahal izanen dio erakunde izangaiari.
4. Nahiz eta toki-erakundeak 1. eranskinean jasotako baldintza guztiak bete ez, zuzendaritza-batzordeak, salbuespenez, izangaia elkarteko kide gisa onartua izatea eska diezaioke batzar nagusiari. Akordio-proposamena behar bezala arrazoiturik egonen da.

8. artikulua. Entitate bazkideen eskubideak

Honako hauek dira elkartutako erakundeen eskubideak:

1. Elkarreak bere xedeak betetzeko antolatuko dituen jarduera guztietan parte hartzeko eskubidea.
2. Batzarretan parte hartzeko eskubidea, hitzarekin eta botoarekin.
3. Elkarrearen baitan sor daitezkeen batzorde edo lantaldeetan parte izatekoa.
4. Bere ordezkarien bitartez, elkarrearen zuzendaritza-karguetarako hauteslea eta hautagarria izatekoa.
5. Elkarrearen organoek elkarreak burututako jardueraren, eta elkarrearen ekonomia- eta ondare-egoeraren inguruan hartutako akordioei buruzko informazioa jasotzekoa.
6. Elkarreak hartutako erabakiak aurkaratzekoa, horiek legez nahiz estatutuez kontrakoak jotzen baditu.
7. Elkarteko organoei eskaerak, proposamenak eta kexak aurkeztekoa.

9. artikulua. Elkartutako erakundeen betebeharrak.

Honako hauek dira elkartutako erakundeen betebeharrak:

1. Estatutu hauek eta zuzendaritza-organoen baliozki hartutako erabakiak bete.
2. Ezarrita dauden kuotak ordaindu.
3. Batzarretara eta parte diren gainerako organoen bileretara joan.
4. Elkarrearen jardueretan eta elkarrearen xedeak betetzen lagundu.
5. Hala dagokionean, betetzen duten karguak berezkoak dituen betebeharrak bete.

10. artikulua. Elkartutako erakundeko kidea izateari utziko zaio:

1. Elkartutako erakundeak hala erabakita; horretarako, zuzendaritza-batzordeari idatziz jakinaraziko dio sarea uzteko erabakia. Halaber, kidea izateari utziko dio estatutuetan jasotako betebeharrak ez betetzeagatik.

2. Estatutuetan jasotako betebeharrak betetzen ez badira, eta alderdi interesdunak esan beharrekoa entzun ondoren, zuzendaritza-batzordeak, gehiengoz, alderdi kaltetuak baja emateko proposamen arrazoitua aurkeztuko du ohiko batzar nagusiaren aurrean, eta horrek onartu egingen du edo ez, 16. artikuluan jasota dagoen gehiengoz.

III. TITULUA. ELKARTEAREN GOBERNU ETA ORDEZKARITZA ORGANOAK

11. artikulua. Elkartearen organoak

Elkarteak honako organo hauek ditu:

- Batzar nagusia
- Zuzendaritza-batzordea
- Lehendakaritza.

1. KAPITULUA. BATZAR NAGUSIA

12. artikulua. Osaera

1. Elkartutako erakunde guztiek osatzen dute batzar nagusia, eta berau da elkartutako erakunde guztien partaidetza- eta adierazpen-organo gorena. Alkatetzek edo udalek eskuordetutako pertsonak ordezkatzeko dituzte toki-erakundeak.
2. Lehendakaria izanen da batzarren buru, Elkartearen idazkariak lagundurik.

13. artikulua. Batzar-motak

Batzar nagusiak ohiko eta ezohiko bilerak egin ditzake.

Batzar Nagusiak urtean behin egingen du ohiko bilkura, eta ezohikoa zuzendaritza-batzordeak hala erabakitzen duenean, edo elkartutako erakunde herenak, gutxienez, eskatzen badu. Deialdia idatziz egingen da, eta horretan aztertu beharreko gai-zerrenda jasoko da. Halakoetan, lehendakaritzak batzarrera deituko du behar besteko denborarekin, zuzendaritza-batzordeak batzarra egiteko erabakia hartu, edo elkartutako erakunde herenak batzarra egiteko sinatutako eskaera jaso eta hiru hileko epearen barnean burutu ahal izateko.

14. artikulua. Deialdiak eta quoruma

1. Batzar nagusietarako deiak gutxienez hamabost egun aurretik eginen dira, idatziz. Deietan zer batzar-mota den, lekua, eguna eta ordua (lehenengo deialdirako eta bigarren deialdirako) jasoko dira, baita gai-zerrenda ere (aztertuko diren gaiak espresuki aipatuta).
2. Aurreko ataletan xedatutakoa gorabehera, batzar nagusia burutu ahal izanen da deialdirik egin gabe, baldin eta elkartutako erakunde guztiak presente egonda, aho batez batzarra egitea onartuko balute.
3. Batzarra balio osoz eratutzat joko da elkartutako erakundeetatik erdia gehi bat, lehenengo deialdian, eta bigarren deialdian edozein kopuru dela ere bertan direnean. Lehenengo eta bigarren deialdiaren artean gutxienez hogeita hamar minutuko tartea egonen da.

15. artikulua. Eskumenak

Batzar nagusiaren eskumenak dira:

- a. Lehendakaria, lehendakariordea eta zuzendaritza-batzordea aukeratuko ditu.
- b. Idazkaritza teknikoa kontratatzeko sistema zehaztea, eta, zuzendaritza-batzordeak proposaturik, idazkaritza-teknikoa kontratatzea onartu.
- c. Elkartearen urteko jarduera-plana onartuko du.
- d. Landu litezkeen plan estrategikoak onartuko ditu.
- e. Urteko kudeaketa-txostena onartuko du.
- f. Ekitaldi bakoitzeko aurrekontua eta kontu orokorrak aztertu eta onartuko ditu. Batzarrak, egoki baderitzo. erakundearen kontuak ikuskatzea eska dezake.
- g. Elkarteko kideak diren erakundeek ordaindu beharreko ohiko eta aparteko kuotak finkatuko ditu.
- h. Estatutuak aldatzea.
- i. Beste erakunde publikoekin nahiz pribatuekin hitzarmenak eta partaidetza-akordioak onartzea.
- j. Elkartea desegitea.
- k. Xedapenak eta besterentzeak.
- l. Elkartutako erakundeak banantzea, zuzendaritza-batzordeak hala proposaturik.
- m. Lehendakariari, lehendakariordeari eta zuzendaritza-batzordeko kideei, eta, hala badagokio, idazkaritza teknikoko kideei kargua utzaraztea.
- n. Beste elkarreetan integratzea edo horietatik banantzea erabakitzea.

Estatutuak aldatzea zein elkarte desegitea, horretarako propio deitutako ezohiko batzar nagusian erabakiko da.

16. artikulua. Gehiengoak

1. Oro har, akordioak bertan diren erakunde elkartekideen gehiengo soilez hartuko dira. Gehiengo soila izanen da baiezko botoak ezezkoak baino gehiago badira.
2. Elkartutako erakunde guztien botoen bi herenak beharko dira soilik honako erabaki hauek hartzeko:
 - Estatutuak aldatzea.
 - Lehendakariari, lehendakariordeari eta zuzendaritza-batzordeko kideei kargua utzaraztea erabakitzeko.
 - Elkartutako erakundeak banantzeko, zuzendaritza-batzordeak hala proposaturik.
 - Elkarte desegitea erabakitzeko.

2. KAPITULUA. ZUZENDARITZA BATZORDEA

17. artikulua. Zuzendaritza-batzordearen osaera eta aukeratzea.

1. Elkartearen organo erabakitzalea eta administrazio-organoa den zuzendaritza-batzordea lehendakariak, lehendakariordeak eta bost kidek osatuko dute, ondorioetarako deitutako ezohiko batzar nagusiak aukeratuta.
2. Elkartearen, batzarraren eta zuzendaritza-batzordearen idazkaria izanen da ondorioetarako gehiengo soilez batzordeak aukeratuko duen batzordekidea. Besteak beste, horren eginkizunak izanen dira:
 - Batzar nagusiaren eta zuzendaritza-batzordearen aktak idaztea.
 - Erakundearen liburuak eta artxiboak zaintzea.
 - Posta ofiziala bideratzea.
 - Elkartearen diruzaintza-eginkizunak bere gain hartzea.
 - Lehendakariari laguntzea.
3. Batzarrak aukeratuko ditu zuzendaritza-batzordeko kideak boto aske eta isilpeko bidez. Xede horretarako, aukeraketa egin aitzin, hautagaitza aurkez dezakete elkartutako edozein erakundetako ordezkariak.
4. Karguek ez dute ordainsaririk edukiko.

5. Lehendakaritzan edo lehendakariordetzan egonen ez diren bost batzordekideak honela aukeratuko dira:
 - a) Bi batzordekide 10.000 biztanletik beherako toki-erakundeak ordezkatzeko, toki-erakunde horiek ordezkatzeko dituztenen artetik.
 - b) Bi batzordekide 10.001etik 30.000 biztanlera bitarteko toki-erakundeak ordezkatzeko, toki-erakunde horiek ordezkatzeko dituztenen artetik.
 - c) Batzordekide bat 30.000 biztanletik gorako toki-erakundeak ordezkatzeko; toki-erakunde horiek ordezkatzeko dituztenen artetik.
 - d) Elkartutako erakundeen artean 30.000 biztanletik gora dituen herririk ez badago, 10.000 biztanletik beherako entitateek hiru batzordekide aukeratuko dituzte.
6. Zuzendaritza-batzordea erabat berrituko da udalak, legezko agintaldia beteta, berritzen direnean. Xede horretarako, udal berriak eratu eta gehienez ere sei hileko epean ezohiko batzar nagusia deitu beharko da.
7. Agintaldian hutsik geratzen diren tokiak 4. puntuaren ezarritako prozedura berdinez burutuko den lehenengo batzarrean beteko dira.
8. Lehendakaria ez badago, edo gaixotuz gero, lehendakariordeak (balego) ordezkatu du, edo, hori ezean, batzordekiderik zaharrenak. Idazkaria, berriz, batzordeak izendatuko duen kideak ordezkatu du.

Balizko horietan beretan, zuzendaritza-batzordean berariazko eginkizunak betetzen dituzten kideak beste batzordekide batzuek ordezkatu dituzte, batzordekide guztien gehiengo osoz hartutako erabakiaren bitartez.
9. Zuzendaritza-batzordeko kideek udalaren agintaldiak iraun bitarteko agintaldia izanen dute, eta agintaldiaren amaieran berriz ere aukeratuak izan daitezke.
10. Aipatu agintaldia bukatu delako ez ezik, ondorengo arrazoi hauengatik ere utz dezake kargua:
 - a) Heriotzagatik nahiz dimisioa emanda.
 - b) Elkartutako toki-erakundeko ordezkaria izateari utzi diolako, edo ordezkatzeko duen toki-erakundeak elkarteko kide izateari utzi diolako.
 - c) Bat-bateko bateraezintasunagatik.
 - d) Ezgaitze judizialagatik.
 - e) Behin eta berriz, edo justifikatu gabe, bileretara ez joateagatik.
 - f) Betetzen duen karguak berezkoak dituen eginkizunak ez betetzeagatik.
 - g) Behar bezala arrazoituta beste edozein aferarengatik.

Kargua utzarazteko e), f) eta g) letretan jasotako arrazoiak batzar nagusiak erabaki beharko ditu.

18. artikulua. Zuzendaritza-batzordearen bilerak, eratzea eta akordioak.

1. Zuzendaritza-batzordea gutxienez hiru hilean behin, eta beharrezkoa den guztietan, elkartuko da Elkartearen jardun egokirako. Horretarako, lehendakariak luzatuko du deia, bere ekimenez, edo batzordekideetatik hiruk, gutxienez, eskatuta.
2. Bilerak deialdietan jasotako lokalean, egunean eta orduan egingen dira. Deialdiak, berriz, bilera burutu baino bost egun natural lehenago helaraziko zaie zuzendaritza-batzordeko kideei, eta horietan jasoko dira gai-zerrenda eta behar besteko informazio osagarria.
3. Ezin izanen da gai-zerrendan ez dagoen gairen inguruko erabakirik hartu, salbu eta zuzendaritza-batzordeko kide guztiak bertan egonda, aho batez hala erabakitzen badute.
4. Zuzendaritza-batzordea balio osoz bildutzat joko da kide guztien erdiak gehi bat bertan badira. Betiere, lehendakariak eta idazkariak ere, edo horien ordezkoeak, bileran egon beharko dute.
5. Karguak baliozkoak izanen badira, bileran direnen botoen gehiengoz onartu beharko dira. Berdinketa gertatuz gero, lehendakariak kalitateko botoa edukiko du.
6. Zuzendaritza-batzordeak hartutako akordioak akta-liburuan jasoko dira, eta lehendakariak eta idazkaritzaren ardura duen pertsonak sinatuko dute. Bilerari hasiera emanda, aurreko bilkurako akta irakurriko da, eta, kasuan kasu, onartu edo hutsak zuzenduko dira.

19. artikulua. Zuzendaritza-batzordearen eginkizunak.

Zuzendaritza-batzordeari dagozkio:

1. Elkartearen jarduna zuzentzea.
2. Batzar nagusiko akordioak prestatzea eta gauzatzea.
3. Batzarrari, hala badagokio, erakundearen egitura administratiboa proposatzea, eta hori kontratatzea.
4. Idazkaritza teknikoaren kontratazioa proposatzea, batzarrak ezarritako sistemaren arabera.
5. Elkartutako erakundeek ordaindu beharreko kuota proposatzea batzarrari.
6. Erakunde berriak onartzea proposatzea batzarrari.

7. Estatutuak interpretatzea, eta horien inguruko esanahian eta aplikazioan sor litezkeen zalantzak ebaztea. Batzarrari estatutueta egoki ikusten diren aldaketak egitea proposatzea.
8. Batzarrak noiz egin erabakitzea, eta batzar horien gai-zerrenda onartzea.
9. Kontseiluetan, lantaldeetan, topaguneetan, eta egotea egoki ikusten den gainerakoetan elkarteak ordezkatzeko dutenak izendatzea.
10. Idazkaritza teknikoari agindutako ekintzak eta helburuak betetzen direla zaintzea.
11. Kudeaketa-txostena, jarduera-programa, aurrekontuak eta kontuak lantzea eta batzarrera eramatea.
12. Idazkaritza teknikoari agindutako helburuak zein mailatan bete diren, eta akordioak eta ekintzak zein mailatan gauzatu diren ebaluatzea.

3. KAPITULUA. LEHENDAKARITZA ETA LEHENDAKARIORDETTA

20. artikulua. Lehendakaria eta lehendakariordea aukeratzea.

1. Elkartearen lehendakaria ezohiko batzar nagusiak, organoak berritzeko deituak, aukeratuko du, kargura aurkeztuko diren hautagaien artean. Boto gehien jasoko dituenak izanen da aukeratua.
2. Lehendakariordea izanen da, automatikoki, lehendakari-kargurako aurkeztu eta lehendakariaren ondoren boto gehien lortu dituenak. Lehendakaria izateko hautagai bakarra aurkeztuz gero, beste bozketa bat eginen da lehendakariordea aukeratzeko, lehendakaria aukeratzeko erabili den sistema berarekin.

21. artikulua. Lehendakaritzaren eginkizunak.

Lehendakaritzak honako eginkizunak edukiko ditu.

1. Elkarteak legeak ordezkatzeko, eremu guztietan elkartearen bozeramailea izatea, eta haren sinaduraren bitartez izenpetutako edozein dokumentu baimentzea.
2. Zuzendaritza-batzordearen eta batzar nagusiaren bilkurak deitzea, buru izatea eta zuzentzea; zuzendaritza-batzordeak eginen dituen bileren gai-zerrenda lantzea; eta bi organo horietan kalitateko botoa ematea.
3. Zuzendaritza-batzordearen eta, hala badagokio, batzar nagusiaren akordioak gauzatzeko.
4. Elkartearen ordainketak agintzea.
5. Bere karguari dagozkion gainerako eskuduntzak.

22. artikulua. Lehendakariordetzaren eginkizunak.

Lehendakaririk ez dagoenean, falta denean edo eri dagoenean, lehendakariordeak ordezkatuko du.

IV. TITULUA. IDAZKARITZA TEKNIKOA ETA LANTALDE TEKNIKOA

23. artikulua. Idazkaritza teknikoaren eginkizunak

Idazkaritza teknikoak erabakitze modua batzarrak finkatuko du. Idazkaritza teknikoak sostengua emanen dio zuzendaritza-batzordeari honako hauetan:

1. Elkartearen lan teknikoak eta administratiboak bideratzen eta bultzatzen.
2. Organoek hartutako erabakiak inplementatzen.
3. Estatutuen 6. artikularen barnean agindutako jarduerak bultzatzen.
4. Lantalde teknikoarekin lankidetzan jardun, eta sarera elkartutako erakundeei informazioa eta aholkularitza ematen koordinatzen, eskaintza eszenikoari, azokei, ekipamenduei eta bestelakoei dagokienez.
5. Lantalde teknikoarekin batera, elkartutako erakundeen arteko elkarlanerako esparruak bultzatzen, programa bereziak, propioak nahiz bestelako ekimenak kudeatze aldera.
6. Lantalde teknikoarekin batera, erakundea zabaltzeko plana lantzen.
7. Lantalde teknikoarekin batera, finantzaketa- eta babesletza-iturriak aztertzen, elkartearen organoei horiek proposatzeko.

Idazkaritza teknikoaren lana zuzendaritza-batzordearen eta batzarraren esanetara egonen da.

24. artikulua. Lantalde teknikoaren osaera

1. Lantalde teknikoak aholkularitza teknikoak emanen dio zuzendaritza-batzordeari.
2. Zuzendaritza-batzordeak izendatuko du lantalde teknikoak, eta elkartutako agertokiak kudeatzen dituzten pertsonen artean aukeratutako sei kidek osatuko dute. Sei kide horiek lurraldea ordezkatuko dute, eta honela egonen dira banatuta:
 - Bi kide eremu geografiko zentralerako lurraldearen antolamenduko planekoak (LAP 3).

- Bi kidea Ebro ardatzeko eremuko lurraldearen antolamenduko planekoak (LAP 5).
- Kide bat Pirinioetako eta Nafarroa Atlantikoko LAP 1 eta 2 lurralde-eremuetakoa.
- Kide bat erdialdeko eremu geografikoetako lurraldearen antolamenduko planekoa (LAP 4).

30.000 biztanletik gorako toki-erakundeen agertokiak baleude, horietako bat ordezkatzeko lukeen pertsona bat gehituko litzateke.

Lantalde teknikoko kideak bi urtez egonen dira horretan, eta erdia urtero berrituko da.

25. artikulua. Bilerak

Lantalde teknikoak bi hilean behin elkartuko da, edo lantaldea osatzen duten pertsonen herenak hala eskatuta. Bileren deia idazkaritza teknikoak eginen du.

Idazkaritza teknikoak agertokien kudeatzaile guztiak deituko ditu jaso dituen aginduak behar bezala garatzeko egoki deritzon guztietan, edo lantalde teknikoak osatzen dutenek hala eskatuta.

26. artikulua. Lantalde teknikoaren eginkizunak

1. Idazkaritza teknikoari eman zaizkion eginkizunak betetzen lagundu.
2. Sarera elkartutako erakundeei informazioa eta aholkua ematen lagundu, eskaintza eszenikoari, azokei, ekipamenduei eta bestelakoei dagokienez.
3. Zerbitzu komunak kontratatzeke proposamenak landu.
4. Kudeaketa-tresnen, prestakuntza-ekintzen, azterlanen eta bestelakoen inguruan dauden premiei buruz aholkatu.
5. Elkartutako erakundeen arteko elkarlanerako esparruak bultzatu, programa bereziak, proiektuak nahiz bestelako ekimenak kudeatze aldera.
6. Erakundearen zabalkunde-plana lantzen lagundu.
7. Finantzaketa- eta babesletza-iturriak aztertu, elkartearen organoei horiek proposatzeko.

Idazkaritza teknikoaren lana zuzendaritza-batzordearen (honi emanen dio egiten duenaren berri) eta batzarraren esanetara egonen da.

V. TITULUA. EKONOMIA ARAUBIDEA

27. artikulua. Sortze-ondarea

Elkarteak, sortzeko unean, ez du ondarerik.

28. artikulua. Ekonomia-baliabideak

Elkarteak, bere helburuak betetzeko, honako baliabideok izanen ditu:

- a) Batzar nagusiak elkartutako erakundeei ezarritako kuotak.
- b) Elkartutako erakundeetatik nahiz hirugarrenetatik (publikoak nahiz pribatuak) jaso ditzakeen laguntzak, diru-laguntzak, dohaintzak, ekarpenak, kontribuzioak, ondareak eta oinordetzak, diruzkoak nahiz ez, baita ezar litezkeen babesletzetatik etor daitezkeenak ere.
- c) Ondorioetarako Nafarroako Gobernuarekin adostutako ekarpena, hitzarmena sinatuta.
- d) Jardun propioak gauzatzetik, elkartearen jarduerarekin lotura duten produktuak merkaturatzetik, zerbitzuak ematetik eta ondasunak besterentzetik lor daitezkeenak.
- e) Banku-interesak.
- f) Lege-xedapenen eta estatutuetako aginduen arabera lortutako beste edozein baliabide.

29. artikulua. Ekonomia-ekitaldia.

Ekonomia-ekitaldia bat etorriko da urte naturalarekin, eta abenduaren 31n itxiko da.

VI. TITULUA. LIBURUAK ETA AGIRIAK

30. artikulua. Derrigorrezko agiriak

Elkarteak honako betebeharrak ditu agiriekin:

- a) Elkartutako erakundearen zerrenda eguneratua edukiko du.
- b) Aplikagarriak zaizkion berariazko arauarekin bat etorriko den kontabilitatea eramanen du; horrek erakundearen ondarearen, emaitzaren eta finantza-egoeraren irudi zehatza lortzen lagunduko du.
- c) Ondasunen inbentarioa edukiko du.

d) Gobernu-organoen eta ordezkari-organoen bileren aktak eginen ditu.

31. artikulua. Agiriatarako bidea

Elkartekide guztiek aurreko artikuluan aipatutako agiri guztietara sartzeko bidea izanen dute zuzendaritza-batzordearen bitartez, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege organikoak jasotako baldintzetan.

VII. TITULUA. DESEGITEA ETA LIKIDATZEA

32. artikulua. Desegitea.

1. Elkartea deseginen da elkartutako erakundeen bi herenek ezohiko batzar nagusian hartutako akordioz.
2. Kode Zibileko 39. artikuluan jasotako arrazoiengatik.
3. Epailaren erabakiz.

33. artikulua. Likidatzea.

Desegiteko erabakian likidatzeko irizpideak jasoko dira. Elkartutako erakundeek ezin izanen dute egindako ekarpenen zenbatekoa baino altuagorik jaso, elkarteari ordaindutako ohiko kuotak kontuan hartu gabe. Gainerako ondareak, halakorik balego, ezin izanen du elkarteari irabazi asmorik gabeko izaera desitxuratu, eta elkarreak zituen antzeko helburuetarako bideratuko da.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena. Hauteskunde-prozesu bakoitzaren ondoren toki-korporazio berriak eratuta, berritu diren toki-erakundeetako lehengo ordezkari guztiek beren karguak utziko dituzte.

Bigarrena. Aurrekoa gorabehera, hutsik geratu diren karguak elkarteko organoetan ordezkari zuten toki-korporazioetako alkatetzek edo horiek izendatutako zinegotzigoek beteko dituzte jardunean hurrengo ezohiko batzar nagusia egin arte.

Hirugarrena. 7. artikuluko 1.a puntuan xedatutakoa gorabehera, Nafarroako Antzoki Sarea Elkarteko kide izan daitezke Sarea sortzeko Nafarroako Gobernuarekin eta Nafarroako Udalerrien eta Kontzejuen Federazioarekin 2009., 2010. eta 2011. urteetan sinatutako hitzarmenean sartu ziren toki-erakundeak, baita horien agertokiren batek 1. eranskineko baldintzaren bat betetzen ez badu ere.

Laugarrena. Estatutuen eta gobernu-organismoek eta ordezkari-organismoek balio osoz hartutako akordioen ordezkotza gisa, indarrean dagoen elkartzeko eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Legea eta gainerako garapeneko xedapenak aplikatuko dira estatutu hauetan aurreikusita ez dagoen guztian.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Elkartearen organismoak eratuta, eta bi hilabeteko epean, elkartzeko erakundearen agertokiak kudeatuko dituzten pertsonak lantalde teknikoak osatuko duten pertsona guztiak aukeratuko dituzte. Lantalde teknikoak eratu eta urtebetera, kideen erdiek beren kargua utziko dute, kide horien beraien erabakiz, edo, akordiorik lortu ezean, zozketa bidez. Horren xedea da estatutuek lantalderako ezarritako berrikuntza partziala egitea.

1. ERANSKINA.

AGERTOKIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

1.- Agertokiak bete beharreko baldintzak:

a) 140 eserleku edo gehiago edukitzea.

b) Antzezleku edo eremu eszenikoa, gutxieneko neurri hauekin:

b.1.- Zabalera: 7 metro. Hondoa: 5 metro. Altuera: 4,5 metro, Sarea sortu zenean eraikita eta funtzionamenduan zeuden agertokientzat.

b.2.- Zabalera: 8 metro. Hondoa: 6 metro. Altuera: 4,5 metro, Sarea sortuz geroztik eraikitako agertokientzat.

c) Trust-ari dagokionez:

c.1.- Agertoki eraiki berrietan, eremu eszenikoaren sabaian trust edo metalezko euskarri bat izatea, proportziozko banaketarekin, ekoizpeneko elementuen euskarri izateko. Elementu horiek dira, besteak beste: eszenografiak, ehunak eta argi- eta soinu-aparatuak. Trust-ak haga independenteen bitartez eraikita egon behar du, batzuk elektrifikatuak eta beste batzuk ez, eta ez egitura guztia batera jaistera behartzen duen armazoi baten bitartez. Gainera, antzezlektatik kanpora dagoen haga bat eduki beharko du, besaulki-patioaren gainean, eta elektrifikatua, ikuskizunari aurrez aurreko argiztapena eman ahal izateko.

c.2.- Agertokia Sarea martxan jarriz geroztik eraikitakoa bada, agertokiak trusta izan behar du edo, bestela, metalezko euskarria edo argiztapeneko pantaila. Agertokiak antzezlektatik kanpora dagoen haga eduki behar du, besaulki-patioaren gainean, eta elektrifikatua, ikuskizunari aurrez aurreko argiztapena eman ahal izateko.

d) Zamalanetarako sarbide bat.

d.1.- Sarea sortu zenean eraikita eta funtzionamenduan zeuden agertokientzat, antzeztokitik ahalik eta hurbilen, betiere instalazioak igogailua edo karga-jasogailua izanez gero, esparru eszenikoa kalearen mailan ez badago.

d2.- Antzeztokira zuzenean iristea, eta gutxienez 2,15 metroko zabalera eta 2,15 metroko altuera edukitzea, 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera eraikitako agertokietan.

e) Antzeztokian zurezko zorua edukitzea, beltzez margotua, iltzatutako ainguraketak

onartu ahal izateko behar besteko lodierakoa.

- f) Emanaldiaren egunean, jantzi eszeniko bat edukitzea, ganbera beltz bat sortuko duena, agertokia mugatzeko behar bestekoa, horren barnean izanik foro-oihala, hankak (ehunezkoak edo zur beltzezko bastidoreak) eta banbalinak.

2.- Azpiegitura teknikoaren ezaugarriak:

a) Argiztapenari dagokionez:

- a.1.- Areto guztian potentzia-igorpenena proportzioan banaturik egotea, antzezlekuaren ondoan hargune elektrikoa egonen den tokian bildu ahal izateko.
- a.2.- DMX 512 seinalea igortzea, kabinaren eta antzezlekuaren artean.
- a.3.- Korrante hargunea, gutxienez ere 40 kilowatteko potentziarako.

b) Soinuari dagokionez:

- b.1- Soinu patch bat kabinaren eta antzezlekuaren artean, 8 kanalekoa eta 2 itzulerakoa, kableatu finkoarekin, agerian egonen ez dena eta ikusle bakar batek ere ukitzerik izanen ez duena.
- b.2.- Bi mikrofono, oindunak.

c) Laneko tokiei dagokienez:

- c.1.- Kontrolerako puntu edo kabina bat (konpartimentu iragazgaitz bat izanen duena edo agertokiko berariazko eremu bat, antzezlekua ikusteko aukera emanen duena; ikusleak ezin izanen dira bertara iritsi edo eremu hori gurutzatu). Toki hori ikuskizuneko langile teknikoen lantokia izanen da, eta argiztapeneko eta ikuskizuneko aparatuen kontrolerako izanen da (antzezlekuarekin komunikatuta egonen da). Aretoko argien kontrola ere eduki behar du.
- c.2.- Agertokian laneko eskailera bat, bi orrikoa, egonen da, arauaren arabera, eremu eszenikoaren altuerarekin bat etorriko den altuerakoa.

- a) Bermatuko da kontratatutako talde artistikoak behar besteko argi- eta soinu- ekipamendu teknikoa izanen duela emanaldiaren egunean, antzerki, opera, dantza, musika nahiz zirkuko ikuskizun estandar baterako. Ekipamendua emanaldirako kontratatu ahal izanen da, edo esparru eszenikoaren jabetzakoa izan daiteke.